

Idoia Sarak, euskaraz egindako Gradu Bukaerako Lanik onena

2012/12/03

Saria Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eman da, Eskoriatzako campusean. Irabazleak **2.000 euro** jaso ditu saritzat.

Sari hau **MONDRAGON Korporazioko Euskara Batzordearen ekimenez** sortu zen iaz eta ikasleek unibertsitatetik lan mundura jauzi egiten dutenean ikasketa amaierako proiektuak euskaraz egitea sustatzea du helburu. MONDRAGON Korporazioak bere Plan Estrategikoan jaso zuen erronka hori eta 2010ean lantalde bat sortu zen Korporazioko eta Mondragon Unibertsitateko fakultateetako kideez osatuta sari hori abian jartzeko. Mondragon Unibertsitateko ikasleek MONDRAGON Korporazioko erakundeetan egin dituzten proiektuak aztertu eta ebaluatu dituzte hiru fakultateetako bina kidek eta Korporazioko ordezkari batek.

Guztira, Mondragon Unibertsitatean, **132 proiektu egin dira euskaraz eta 42 proiektu aurkeztu dira sarira** Enpresagintzatik, Goi Eskola Politeknikotik eta HUHEZItik. Iaz berriz, 115 proiektu egin ziren euskaraz eta 17 aurkeztu ziren sarira. Aurkeztutako lan guztiak maila tekniko altuko proiektuak dira, eta proiektu irabazlea euskaraz ondoen idatzitako lana izan delako nabarmendu da.

Epaimahaia fakultate bakoitzeko bina kidek (Joxe Aranzabal, Karmele Perez, Naroa Elortza, Miriam Leibar, Xabier Arrasate eta Pedro Urteaga) eta MONDRAGON Korporazioko ordezkari batek (Mikel Lezamiz) osatu dute. Analisi sakon bat egin ondoren, adostasuna egon da lanak puntuatzerako orduan eta aho batez aukeratu da lan saritua.

Aurtengoa, sari horren 2. edizioa izan da, eta urtero antolatzeko asmoarekin jarraitzen dute Mondragon Unibertsitateak eta MONDRAGON Korporazioak. Aurten gertatu den bezala, hurrengo edizioetan partaide kopuruak gorantz egitea espero da.

[Proiektua PDF formatuan](#)

